



Behin betiko onespena emotea Mungiaiko Udal Kiroldegiko Gimnasioen erabilera arautzen dituan arauk

Udalbatzak 2017ko urriaren 27an egindako Osoko Bilkuran "Mungiaiko Udal Kiroldegiko Gimnasioen erabilera arautzen dituan arauak" hasikera baten onartzea erabagi eban; eta bertan azaldu zan jendaurreko epearen barruan erreklamaziorik edo iradokizunik egon ezean, erabagia behin betiko onartuko dala.

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 artikuluan ezarritakoaren arabera, ordenantzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (2017ko zemendiaren 30ean; 229 zk.), Udalaren web-orrian eta Udaletxeko iragarki-oholean argitaratu da; eta informazio publiko eta entzunaldiko epea izan dau.

7/1985 Legearen 49.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, jendaurreko epea amaitu ostean, ikusi da ez dala erreklamaziorik ez iradokizunik azaldu; eta beraz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituan Legearen 70.2 artikuluari jarraituz (Toki Administrazioa eraberritzeko neurriei buruzko 57/2003 LEGEAK aldatzen dauena), behin betiko onartzen da eta berorren testua osorik argitaratuko da.

Ordenantza hori Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan ezarrita dagoan epea igaro ostean sartuko da indarrean.

Mungia, 2018ko urtarrilaren 31n

Aprobación definitiva del "Reglamento de uso del Gimnasio del Polideportivo Municipal".

El Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria celebrada el día 27 de octubre de 2017, acordó "aprobar inicialmente el Reglamento de uso del Gimnasio del Polideportivo Municipal", señalándose en el mismo que, de no presentarse reclamaciones o sugerencias dentro del plazo de exposición pública, el acuerdo se entendería definitivamente adoptado.

En cumplimiento a lo establecido en el art. 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, la ordenanza ha sido sometida a trámite de información pública y audiencia a los interesados, mediante la publicación de anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia núm. 229, de fecha 30 de noviembre de 2017, en la Web municipal y en el Tablón de Edictos del Ayuntamiento.

Finalizado el plazo de exposición pública establecido en el art. 49.2 de la citada Ley 7/1985, sin que se hayan presentado reclamaciones o sugerencias, se entiende definitivamente adoptado el acuerdo, por lo que, en cumplimiento a lo señalado en el artículo 70.2 de la Ley de Bases de Régimen Local, reformada por la Ley 57/2003, de 16 de diciembre de Medidas para la Modernización del Gobierno Local, se procede a la publicación íntegra de su texto.

La Ordenanza entrará en vigor una vez transcurrido el plazo previsto en el artículo 65.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Mungia, 31 de enero de 2018

ALKATEA/EL ALCALDE
Ager Izagirre





ERABILERA ARAUAK- UDAL KIROLDEGIKO GIMNASIOA

ATARIKO TITULUA: KONTZERTU OROKORRAK

Artikuluak.- Oinarriak

Erregelamendu hau sortu da Mungia Udalarena dan kiroldegiko gimnasioaren araubide juridikoa, kudeaketa eta erabilera arautzeko; eta arlo honetan legeriak udalei emoten deusezan eskumenen babespean egin da, hain zuzen bere ondoko lege eta lege-artikuluen babespean: Toki Araubidearen Oinarriak ezartzen dituan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25 m) artikulua, lege horren berorren 49. artikulua ezarritakoari jagokonean; Toki Araubidearen arloan indarrean dagozan legezko xedapenen Testu Bategina onesten dauen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege-Dekretuaren 55 artikulua; eta Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onesten dauen zemendiaren 28ko 2568/1986 Errege-Dekretuaren 50.3 artikulua.

2.-. artikulua.- Aplikazio eremua

Erregelamendu hau udal kiroldegiko gimnasioari aplikatuko jako, baita berorren erabiltzaile guztiei bere, erabiltzaile horreek diranak dirala (norbanakoak, alkarteak, klubak, federazioak, taldeak, gurasoen alkarteak).

3. artikulua.- Definizioa

Erregelamendu honek zer hartzen dau gimnasiotzat? Instalazio, gela edo gune osoa, ekipamendu osagarriak eta funtzionalak barne.

LEHENENGO TITULUA: ARAU OROKORRAK

I KAPITULUA.- GIMNASIOAREN ERABILERA

4. artikulua.- Instalazioaren arduradunen aginduak bete beharko dira beti.

5. artikulua.- Areto horretan sartu ahal izateko, derrigorrez aurkeztu beharko da erabiltzaile-txartela.

6. artikulua.- 16 urtetik gorakoak baino ezin izango dira aretora sartu; 16tik beherakoak badira, euren ardura legala daukan helduren bategaz batera sartu beharko dabe aretora.

REGLAMENTO DE USO DEL GIMNASIO DEL POLIDEPORTIVO MUNICIPAL

TÍTULO PRELIMINAR: CONCEPTOS GENERALES

Artículo 1.- Fundamentos

El presente Reglamento tiene por objeto regular el régimen jurídico, gestión, uso y utilización del gimnasio del polideportivo municipal titularidad del excelentísimo Ayuntamiento de Mungia y se dicta al amparo de las competencias que en esta materia atribuye a los municipios el artículo 25 m) de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local en relación con el artículo 49 del citado texto legal; artículo 55 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de las disposiciones vigentes en materia de Régimen Local, y artículo 50.3 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

Artículo 2.- Ámbito de aplicación

El presente Reglamento será de aplicación en el gimnasio del polideportivo municipal y a todos los usuarios y usuarias del mismo y asociaciones, clubes, federaciones, agrupaciones, AMPAS, etcétera que hagan uso del mismo.

Artículo 3.- Definición

Se entiende por gimnasio, a los efectos de este reglamento, a toda la instalación, dependencia o espacio, incluyendo las zonas de equipamiento complementarias o funcionales.

TÍTULO PRIMERO: REGULACIÓN GENERAL

CAPÍTULO I.- SOBRE EL USO DEL GIMNASIO

Artículo 4.- Se deberán atender, en todo momento, las indicaciones del personal responsable del servicio.

Artículo 5.- Para el ingreso a la sala es indispensable presentar el carnet de persona usuaria

Artículo 6.- Sólo podrán acceder a la sala personas mayores de 16 años o menores acompañadas de una persona adulta responsable legalmente.



7.artikulua.- Ezin da aretoan sartu kirol-jarduerarik egiten ez dabilen inor.

8. artikulua.- Ezin da barrura sartu gela horretan antolatutako jarduerak egiten dagozan bitartean edota arrazoitutako beste edozergaitik sartzen ez ixteko erabagia hartzen danean.

9. artikulua.- Barrura sartzeko derrigorrez eroan behar dira jantzita kirol arropa eta oinetako garbiak; eta beti eroan beharko dira aldean jantzita, gitxienez, kamisetea edo antzekoa, frakak eta oinetakoa.

10. artikulua.- Ezin da gela barrura sartu motxila edo kirol-boltsarik.

11. artikulua.- Areto barruan ezin da jan; ezta kristalezko edo ebagiteko moduko materialiez egindako gauzarik sartu.

12. artikulua.- Ezin da ezelango irudirik hartu (argazkiak, bideoak eta abar).

II. KAPITULUA.- JARDUAREA

13. artikulua.- Erabiltzaileak berak dauka ardurea egiten dituan ariketak berarentzat egokiak diran ala ez jakiteko. Gaixotasun, arazo edo lesino fisikoren bat izan ezker, jardurea hasi baino lehenago emon beharko jako horren barri zerbitzuaren arduradunari.

14. artikulua.- Bai instalazioak eta bai materialak behar dan moduan erabili eta zainduko dira. Materiala zaintzeko, derrigorrezkoa da zeozer erabilten dauen bakotzak erabili dauen hori behar dan moduan ixtea; hau da, barrak eta pisuak behar dan moduan ixtea bakotxa bere lekuan.

15. artikulua.- Guztiz debekatuta dago pisua jausten ixtea; bai makinetan eta bai pisu librean. Era berean, galarazota dago pisuak, barrak edo pisuzko beste edozer ixtea bankuen ganean.

16. artikulua.- Lana erobikoko ekipamendua dala eta, debekatuta dago alde elektronikoen ganean jartzea.

17. artikulua.- Instalazioak ardura barik edo txarto erabiltearen ondorioz sortzen diran kalteak, kalte oneragilearen ardurea izango dira; eta horren ganera, beste era bateko zigorrak bere ezarri ahal izango dira.

Artículo 7.- Está prohibido el acceso a la sala a personas que no estén practicando actividad física.

Artículo 8.- Está prohibido el acceso en horas de actividades organizadas y siempre que sea necesario por cuestiones razonadas.

Artículo 9.- Sólo se podrá acceder a la sala con prendas y calzado deportivo de gimnasio limpio, siendo obligatorio el empleo, como mínimo, de camiseta o similar, pantalón y calzado.

Artículo 10.- Está prohibido acceder al interior de la sala con mochilas o bolsas deportivas.

Artículo 11.- Está prohibido comer, ni introducir objetos de cristal o material cortante a la sala.

Artículo 12.- Está prohibido realizar cualquier tipo de toma fotográfica, video, etc...

CAPÍTULO II.- SOBRE LA ACTIVIDAD

Artículo 13.- Cada persona usuaria será responsable de que los ejercicios realizados sean adecuados a sus condiciones físicas. Cualquier enfermedad, problema o lesión física deberá comunicarse, previo al inicio de la actividad, a la persona responsable del servicio.

Artículo 14.- Se usarán las instalaciones y el material con la diligencia adecuada. Para evitar el deterioro acelerado del equipamiento, es obligatorio que los y las usuarias recojan convenientemente el material que se haya utilizado, dejando las barras y las diferentes pesas en el lugar destinado para ello.

Artículo 15.- Está específicamente prohibido dejar caer el peso, ni en las máquinas, ni en el peso libre. Igualmente, está prohibido dejar las pesas, barras, mancuernas o cualquier otro objeto pesado sobre los bancos.

Artículo 16.- Con respecto al equipamiento de trabajo aeróbico, está específicamente prohibido sujetarse en las superficies electrónicas.

Artículo 17.- Además de las posibles sanciones que pudieran traer aparejadas, los desperfectos que se originen por negligencia o mal uso de las instalaciones serán por cuenta de la persona autora de la infracción.



18. artikulua.- Ezin da kirol materialik atera gelatik kanpora. Era berean, ezin da pasabiderik, sarrerarik edo makinaren arteko eremurik okupatu

19. artikulua.- Higiene-arrazoiakaitik, derrigorrezkoa da toallea erabiltea tresnetan, baita kardiokoetan bere. Toalla horren neurria, gitxienetik, erabiltzailearen lepoaren neurrikoa izango da.

20. artikulua.- Eskari maila altua dala eta, makinak eta pisuak erabilteko denporea beharrezkoa dana baino ez da izango; eta konpartitu egin beharko dira ahal dan neurrian.

21. artikulua.- Kardioko ekipamenduko tresna batzuetan zerrendea erabiliko da; hau da, erreserba egin beharko da, eskatzen diran datu guztiak beteta, eta irakurteko moduko letra erabilita. Holan egiten ez bada, erreserba hori bertan behera lotuko da. Erreserba erabiltzailearen izenean egin beharko da eta horrek abonatu izan behar dau edo, bestela, egunero sartzeko moduan egon.

22. artikulua.- Erreserben zerrendan dagoan ordenari jarraituko joko.

23. artikulua.- Makinak erabilteko gehieneko denporea 30 minutukoa izango da, beti bere atzetik beste nonork hartuta daukanean.

24. artikulua.- Atzetik ez badago erreserba gehiagorik egin da, erabilten jarraitu egin ahal izango da.

25. artikulua.- Ezin da egin erreserbarik jarraian makina desbardinatarako.

26. artikulua.- Erreserbeak galdu egingo dau bere indarra behin bost minutu igarota.

BIGARREN TITULUA: ZIGOR-ARAUBIDEA

27. artikulua.- Arau-hausteetarako eta Zigorretarako Sistema Orokorra.

27.1.- Betebeharrak eta Erregelamendu honetan ezarritako arauak –derrigorrean bete beharrekoak– beteten ez badira, zigor-prozedura jarri ahal izango da abian, ondoko lege-artikuluak ezarritakoari jarraituta: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa ezartzen dauen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 25. artikulua eta

Artículo 18.- Está prohibido sacar el material deportivo de la sala, ni ocupar el espacio destinado a tránsito, ni de acceso, ni entre máquinas.

Artículo 19.- Por motivos de higiene, es obligatorio el uso de toalla en los aparatos que se vayan a utilizar, incluidos los de cardio. Su tamaño será, como mínimo, el de la espalda de la persona usuaria.

Artículo 20.- Debido a la elevada demanda existente, el tiempo máximo de uso de las máquinas y pesas será el imprescindible, debiendo compartirse su uso siempre que sea posible.

Artículo 21.- Para el uso del equipamiento de cardio, se deberá realizar la reserva a nombre de la persona usuaria, que deberá ser abonada o estar en disposición de la entrada diaria, en el listado correspondiente, rellenando todos los datos solicitados, de forma legible para el personal encargado (en caso contrario se entenderá como no realizada).

Artículo 22.- Para el turno de uso, se seguirá el orden establecido en el citado listado de reservas.

Artículo 23.- Dicho uso, será de un máximo de 30 minutos, siempre que haya reservas posteriores.

Artículo 24.- Si no hubiera otras reservas, se podrá continuar con el uso.

Artículo 25.- Está prohibido realizar reservas seguidas en máquinas diferentes.

Artículo 26.- La reserva perderá validez una vez transcurridos cinco minutos desde su inicio.

TÍTULO SEGUNDO: RÉGIMEN SANCIONADOR

Artículo 27.- Régimen General de Infracciones y sanciones.

27.1.- La infracción de las obligaciones y demás normas de obligado cumplimiento establecidas en este Reglamento, podrán ser objeto de procedimiento sancionador en los términos del art. 25 y siguientes de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, del régimen jurídico del sector público, y la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones



ondokoak; eta 2/1998 Legea, zezeilaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenaren ganekoa.

27.2.- Instalazioen, zerbitzuen eta jardueren arduradunek ahalmena daukie behar dan moduko jarrera erakusten ez daberen pertsonen ohartarazpen bat egiteko edo, beharrezkoa bada, Zentrotik botateko.

28.artikulua.- Arau-haustek

28.1.- Ondoko honeek joko dira **ARAU-HAUSTE ARINTZAT**:

- a) Erabiltzaileek Erregelamendu honetan ezartzen diran betebeharrak ez betetea, ondorioak dirala-eta arau-hauste horrekin arau-hauste astun edo oso astuntzat kalifikatu beharra ez badago.
- b) Erabiltzaileei zein bertan zereginen bat egiten dabilzan teknikari edo langileei tratu desegokia edo txarra emotea.
- c) Ausarkeria edo ardurabakokeriagaitik 100 eurotik beherako kalteak eragitea bertako instalazio, material edo ekipamenduetan.
- d) Jarduera edo zerbitzuen arduradunek euren zereginen esparruan emondako aginduei kasurik ez egitea.
- e) Jarduerak etengo dituan edozein astapala edo osterantzeko nahaste eragitea, arau-hauste asuntzat edo oso astuntzat kalifikatu ez bada.

28.2.- Ondoko honeek joko dira **ARAU-HAUSTE ASTUNTZAT**:

- a) Udal Kiroldagiko espazio eta zerbitzuetan istiluak eragitea.
- b) Erabiltzaile-betebeharrak behin eta berriro ez betetea.
- c) Beste erabiltzaileei edo Kiroldagiko langileei tratu txarra emotea, berbaz zein egitez.
- d) Instalazioari, materialari edo

Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco

27.2.- Los responsables de las instalaciones, Servicios y actividades, tienen la facultad de advertir, e incluso de expulsar del Centro de forma cautelar, hasta la resolución del informe de incidencia, a aquellas personas que no observen la conducta debida.

Artículo 28.- Infracciones

28.1.- Tendrán la consideración de **INFRACCIÓN LEVE**:

- a) El incumplimiento de algunas de las obligaciones establecidas en este Reglamento por parte de los usuarios y usuarias cuando su consecuencia no dé lugar a la calificación de grave o muy grave.
- b) El trato incorrecto a cualquier usuario o usuaria, personal técnico o demás personal que realice funciones en la instalación.
- c) Causar daños por comportamiento imprudente o negligente a la instalación, material o equipamiento de las mismas por importe inferior a 100 €.
- d) Desatender las indicaciones de las personas responsables de las actividades o servicios dictadas en el ámbito de sus funciones.
- e) Ocasionar alborotos o cualquier otra acción no prevista como grave o muy grave que interrumpa el desarrollo de las actividades.

28.2.- Tendrán la consideración de **INFRACCIÓN GRAVE**:

- a) Alterar la convivencia en los distintos espacios y servicios del polideportivo municipal.
- b) Incumplir reiteradamente algunas de las obligaciones de los usuarios.
- c) Maltratar de palabra u obra a otros usuarios o usuarias o personal dependiente del polideportivo.
- d) Causar daños graves de forma voluntaria a la



ekipamenduari kalte handiak eragitea gurata.

- e) Ausarkeria edo ardurabakokeriagaitik 100 eurotik 300 eurora bitarteko kalteak eragitea bertako instalazino, material edo ekipamenduetan.
- f) Ausarkeria edo ardurabakokeriagaitik istripularrikeragitean norberarizein beste persona batzuei.
- g) Nortasun, adin edo garrantzizko dan beste edozein informazinoenganeko datuak faltsutzea edo nortasuna ordezte.
- h) Lau urteko epean arau-hauste arin bi edo gehiago egin izana.
- i) Nortasun-agiriak eta sarrerak edo bonuak manipulatzeko edo faltsutzea.
- j) Norberak eragindako kalteen barri ez emotea.

instalación, material o equipamiento de las mismas.

- e) Causar daños por comportamiento imprudente o negligente a la instalación, material o equipamiento de las mismas por importe comprendido entre 100 € y 300 € inclusive.
- f) Originar por imprudencia o negligencia accidentes graves a sí mismo o a otras personas.
- g) Falsar intencionadamente los datos relativos a la identidad, edad o cualquier otro relevante y la suplantación de la identidad.
- h) La acumulación de dos o más faltas leves en un periodo de cuatro años.
- i) Manipular o falsificación de documentos identificativos, entradas o bonos
- j) No comunicar de los desperfectos producidos por uno mismo.

28.3.- Ondoko honeek joko dira **ARAU-HAUSTE OSO ASTUNTzat**:

- a) Beste pertsona bati edo batzuei ez ixtea instalazinoa edo bertan eskaintzen dan zerbitzu bat erabilten, pertsona horreek horretarako eskubidea badaukie.
- b) Instalazinoaren funtzionamendu normala eragozte edo tratatzea.
- c) Instalazinoari edo bere ekipamenduei, azpiegiturei zein elementuei 300 eurotik gorako kalteak eragitea.
- d) Instalazinoa erabilten dabilzan pertsoneri eta bertan beharrean dabilzan langileei eraso egitea.
- e) Arau-hauste astun bi edo gehiago egin izana.

28.3.- Tendrán la consideración de **INFRACCIÓN MUY GRAVE**:

- a) Impedir el uso de la instalación o un servicio prestado en el mismo a otra u otras personas con derecho a su utilización.
- b) Impedir u obstruir el normal funcionamiento de la instalación.
- c) Causar deterioros o daños en la instalación o a cualquiera de sus equipamientos, infraestructuras o a elementos, por importe superior a 300 euros.
- d) Agredir físicamente a las personas que están haciendo uso de la instalación así como al personal que trabaja en las mismas.
- e) Acumular dos o más faltas graves.

29.artikuluak.- Zigorrak

29.1.- Arau-hauste arinak idatzizko ohartarazpenaren bidez zigortuko dira, edo tarte batean (egun 1etik 30era bitartean) erabiltzaile izateko eskubidea galduta.

Artículo 29.- Sanciones

29.1.- Los incumplimientos leves serán castigados con apercibimiento por escrito o la pérdida temporal de la condición de usuario por un periodo de 1 a 30 días.



29.2.- Arau-hauste astunak 500 eurora arteko zigorren bidez zigortuko dira, edo tarte batean (31 egunetik 5 urtera bitartean) erabiltzaile izateko eskubidea galdua.

29.3.- Arau-haustea oso astunak 500,01 eurotik 3.000,00 eurora bitarteko zigorren bidez zigortuko dira, edo erabiltzaile izateko eskubidea behin betiko galdua.

29.4.- Ezarriko dan zigorraren maila zehazteko ondokoak hartuko dira kontuan:

- Arau-haustea behin baino gehiagotan egin dan.
- Arau-hausleak gurata egin dauen.
- Gertakariak gizartean zein eragin eduki daben.
- Kalteak zelangoak izan diran eta zelango larritasuna daukien.

29.5.- Zigorra ezartzeaz ganera, arau-hausleari berak aldatu dauen egoera hori lehengora ekarteko eskatu lekio, baita sortutako kalte-galerak ordaintzeko bere.

29.6.- Udal jabetzako ondareei kalterik eragin ezkeru, udal zerbitzu teknikoek zehaztuko dabe konponketa-lanen zenbatekoa, eta arau-hausleari edo haren ordeztu erantzun behar dauenari jakinarazoko jako, ezartzen dan epean ordaindu dagian.

29.7.- Egileak eurak izango dira arau-hausteen zuzeneko erantzuleak, ez bada, adinbakoak dirala edo lege-arrazoiak dirala-eta ardurea leporatu ezin jakien pertsonak dirala. Holango etan, euren legezko zaintza daukienak izango dira erantzuleak.

29.8.- Arau-haustea lagun batek baino gehiagok batera egin ezkeru, guztiek batera erantzun beharko dabe.

29.9.- Beste batzuek egin leizeen administrazinoko arau-hausteei aurrea hartzeko legezko betebeharra daukien persona fisiko edo juridikoak izango dira danadalako arau-haustearen ondoriozko kalteen erantzule solidarioak, halangorik gertatzen bada.

29.10.- Arau-haustea adinbako batek egin badau, kirodegiko arduraduna ahaleginduko da amagaz

29.2.- Los incumplimientos graves serán castigados con multa de hasta 500€ o con la pérdida de la condición de usuario o usuaria por un periodo comprendido entre 31 días y 5 años si la gravedad del mismo lo hiciera necesario.

29.3.- Las infracciones muy graves serán sancionadas con multa de entre 500,01 y 3000 € o la privación definitiva de uso de todas las instalaciones deportivas municipales.

29.4.- Para la graduación de la sanción a aplicar se tendrán en cuenta las siguientes circunstancias:

- La reiteración de infracciones o reincidencia.
- La existencia de intencionalidad del infractor.
- La trascendencia social de los hechos.
- La gravedad y naturaleza de los daños ocasionados.

29.5.- La imposición de sanciones será compatible con la exigencia al infractor de la reposición de la situación alterada por el mismo a su estado originario así como con la indemnización de los daños y perjuicios causados.

29.6.- Cuando se causen daños en bienes de titularidad municipal, los servicios técnicos municipales determinarán el importe de la reparación, que será comunicado al infractor o infractora o a quien deba responder por él para su pago en el plazo que se establezca.

29.7.- Serán responsables directos de las infracciones sus autores materiales, excepto en los supuestos en que sean menores de edad o concurren en ellos alguna causa legal de inimputabilidad, en cuyo caso responderán civilmente por ellos quienes tengan la custodia legal.

29.8.- Cuando las actuaciones constitutivas de infracción sean cometidas por varias personas conjuntamente, responderán todas ellas de forma solidaria.

29.9.- Serán responsables solidarios o solidarias de los daños las personas físicas o jurídicas sobre las que recaiga el deber legal de prevenir las infracciones administrativas que otros pudieran cometer.

29.10.- En el caso de infracciones cometidas por menores, la persona responsable del centro intentará



edo aitagaz edo tutoreakaz hartu-emonetan jarten, prebentzino-jarrerak indartzeko eta familiak dituan tresnak sustatzeko. Era berean, Adinbakoen Fiskaltzari emon ahal izango jako ekintza horreen barri.

29.11.- Adinbakoen kasuan, zigorraren ordezkomunidaderako beharrak ezarri ahal izango jakez, beti bere, arau-haustearen larritasun-mailari egokituak eta neurrikoak.

HIRUGARREN TITULUA: INDARREAN SARTZEA

54.artikulua.- Indarrean sartzea.-

Erregelamendu hau BAOn osorik argitaratu eta handik hamabost egunera sartuko da indarrean, Toki Araubidearen Oinarriak ezartzen dituan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua ezarritakoari jarraituta.

contactar con su padre y su madre, o en su caso, con sus tutores, a fin de promover respuestas preventivas y de promoción de los recursos familiares propios. Asimismo se podrán poner los hechos en conocimiento de la Fiscalía de menores.

29.11.- En el caso de menores de edad se podrá sustituir la sanción que pudiera imponerse por la realización de trabajos o labores para la comunidad, de naturaleza y alcance adecuados y proporcionados a la gravedad de la infracción.

TÍTULO TERCERO: ENTRADA EN VIGOR

Artículo 54.- Entrada en Vigor.-

El presente Reglamento entrará en vigor a los quince días hábiles de su publicación íntegra en el B.O.B. de conformidad con lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril reguladora de las Bases de Régimen Local.